

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Eskubide Sozialen Departamentuak “Biziberri Navarra Rehabilita” sariak banatu dizkie Nafarroan etxebizitzak birgaitzeko egindako lan onenei

Saritutako zazpi proiekturen artean, Beatriz Anaut Fuertesek eskuratu du sari nagusia, Garden etxebizitza bat birgaitzen egindako lanarengatik

Osteguna, 2018.eko azaroak 22

Eskubide Sozialetako lehendakariorde Miguel Laparrak "Biziberri Navarra Rehabilita" sarien lehen edizioako zazpi irabazleri sariak banatu dizkie. Nasuvinsa sozietate publikoak eta Birgaitze Bulegoek (ORVES) elkarlanean antolatu dituzte sariak, eta horien helburua da Nafarroako Foru Komunitatean burututako birgaitze-lan onenak saritzea edota bizilekuen parkea hobetzeko aukera eskaintzen duten sustatzaileen, arkitektoen eta teknikarien lana eta ahalegina aitortzea.

Ekitaldea Civican-eko ekitaldien aretoan egin da, Iruñean, eta bertan izan dira Nafarroako eraikuntza eta birgaitze arloetako profesional ugari nahiz proiektu irabazleen herrietako udal-agintariak, etxebizitzaren birgaitzea sustatu duten pertsonak edota Birgaitze Bulegoetako (ORVES) langileak; hain zuzen ere, azken horiek aurkeztu eta azaldu dituzte irabazleak suertatu diren zazpi birgaitze-lanak.

Hona hemen saritutako proiektuak: "**Pamplona Lezkairu**", Soto de Lezkairu 11 eraikineko jabekideen erkidegoarena; "**Pamplona Carmen**", Carmen 12 eraikineko jabekideena, Iruñeko Alde Zaharrean; "**Monteagudo**", María Planillo Cardenal jabearena; "**Puente la Reina**", Juan Ayerra Larráyoiz eta Ana Lucía Manero Ustárriz jabeena; "**Muskitz**", Imotzeko Udalarena; "**Garde**", Beatriz Anaut Fuertes jabearena; "**Tafalla**" Virginia Mujica Tapiz titularrarena.



Laparra lehendakariordeak etxebizitza bat birgaitzen egindako lanarengatik saria ematen du.

Lan horietan babestutako
birgaitze-mota ezberdinak
islatzen dira: Soto de
Lezkairuko eraikinetako
inguratzaile termikoak

hobetzea, igogailurik ez zegoen eraikinetan igogailuak jartzea, familiek eta gazteek haien herrietako eta hirietako hirigune historikoan bizitzearen alde egindako apustua edota alokairu sozialerako etxebizitza berriak sortzeko jarduerak. Era berean, proiektu horietan ikus daiteke etxe edo eraikin baten lehena eta jardun ondorengo ondorena, edota berrikuntza horrek hiri-ingurunearentzat zein etxebizitzaren jabearentzat nahiz

erabiltzailearentzat ekarri duen aldaketa. Gainera, nabarmentzekoak dira eraikina mantentzen laguntzeagatik, lanaren kalitatearengatik, ingurumenarekin arduratsua den arkitektura ezartzeagatik edota lehendik zeuden eraikuntzak egungo premietara egokituta kontserbatzeagatik.

Sari nagusia Beatriz Anaut Fuertesentzat izan da, Garde herrian etxebizitza bat birgaitzeagatik. Hain zuzen ere, Gardeko hirigunean dagoen ehun urtetik gorako borda bat berritu dute, hots, Nafarroako Pirinioetako 148 biztanleko herri txiki batean, ohiko etxebizitza bezala erabiltzeko. Horretarako, behe eta lehen solairuko eraikuntza zaharra, harrizko horma eta teilaz osatutako estalkia duen eraikin tradizionala, aldatu dute. Lehen nekazaritzako eta abeltzaintzako biltegi moduan erabiltzen zuten, eta orain erabilpenik gabe zegoen.

Gainera, saria jaso duena familiaren jarduerarekin aurrera jarraitzen duen abeltzain gaztea da. Jaioterrian bizitzen geratzea erabaki du, modu horretan bailarako jarduerari eutsiaz eta biztanleria finkatuaz.

Lanak inguruko gremioek egin dituzte, tokiko ekintzailatza bultzatzearekin eta haraneko garapen sozio-ekonomikoa erraztearekin batera.

Etxebizitzak birgaitzearen aldeko apustua

Laparra lehendakariordeak bere hitzaldian nabarmendu du etxebizitzak birgaitzea dela etxebizitzaren inguruko politika berriaren zutabeetariko bat, eta apustu hori sari hauen barnean kokatu du. Halaber, Nafarroan babestutako birgaitze-sistemak dituen alde onak gogora ekarri ditu; hots, puntako programa bat da estatu-mailan, eman beharreko diru-laguntzen ikuspegitik, horiek emateko prozeduraren aldetik eta Birgaitze Bulego ezberdinetan (ORVES) lan egiten duten adituen aholkua jasotzeko aukera izatetik erreparatuta. Nafarroako geografian zehar, bederatzi bulego daude, eta, modu horretan, birgaitze-lanaren bat egin nahi duen edozein pertsona edo erkidego eta etxebizitzaren jabeengandik gertu bulego bat izatea bermatzen da.

Enpresa eta artisten ekarpena

Sariak Rockwool enpresak babesten ditu; hau da, mundu-mailan harri-zuntzean liderra denak; enpresak ekoizpen-zentro garrantzitsua du Caparrosen.

Arteen mundua ere ez da sarien banaketatik urrun egon. Ekitaldian, Nafarroako Julio Mazarico zinemagileak parte hartu du, sariaren sustapen-bideo hunkigarrien egileak edota Floren Domezain Vicente abeslariak, rap erritmoaz baliatuta, sariei laguntzeko falta zen musika eta letra jarri baititu, gaur eta hemen, zure etxebizitza birgaitzea modernoa dela erakutsiaz.



Saridunak, Eskubide Sozialeko lehendakariordearekin.